



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2020KO AZAROAREN 26AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2020ko azaroaren 26an, arratsaldeko 18:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Ricardo Arangoa, Santos Etxegia, Julen Beunza, Xabier Azpiroz, Mari Mar Ansorena eta Olatz Dorai.

18:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onspena.**

Urriaren 1ean egindako batzarreko akta emailez helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

#### **2.- Alkate ebazpenak**

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

- 2020/85 alkate ebazpena onartuz Xabier San Martin Miqueok egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera Arraratsko 14. Poligonoko 313. Lursailean dagoen etxebizitzan bigarren etxebizitza egiteko dirulaguntza 1.631 eurokoa izanik.

-2020/ 86 alkate ebazpena onartuz losu Balda Biurrunek egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera Orokietako 8. Poligonoko 15. Lursailean dagoen etxebizitzan teilatua eta fatxadak berritzeko, dirulaguntza 1.484,64 eurokoa izanik.

-2020/87 alkate ebazpena onartuz A28161396 IFK zenbakidun eta Mutiloan sedea duen Atisae SAU enpresak aurkeztutako aurrekontua, 360 eurokoa (BEZ KANPO), bertan lehenengo eta bigarren bisitak sartuak daudelarik.

- 2020/88 alkate ebazpena onartuz Proquo enpresak aurkeztutako aurrekontua PQ0757/2019 zenbakidun aurrekontua, udaleko sedeetan telefono eta internet azpiegitura egokitzeko, 2.549,62 euroko kostearekin, BEZ kanpo.

- 2020/89 alkate ebazpena onartuz obra baimena ematea Juana M<sup>a</sup> Ochotorena Galarzari

Berueteko 11. Poligonoko 21. Lursailean dagoen Idiaga etxeko teilatua konpontzea. AURREKONTUA 10.255 eurokoa da.

2020/90 alkate ebazpena onartuz 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 0071BDV matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 30,02 eurokoa izanen delarik.

2020/91 alkate ebazpena Onartzea M<sup>a</sup> Cristina de los Reyesek egindako eskaera Jaunsaratasko Asuncion kaleko 22, 1 pisuko solairuko etxebizitzaren hornidura gastuengatik duen zorra epeka ordaintzeko. Eskatzaileari adierazi, ordainketak modu honetan egin beharko direla:

- Azaroaren 15a baino lehen, zor duen kopuruaren erdia, 283,81 euro.

- Abenduaren 15a baino lehen, gelditzen den kopurua, 283,81 euroak.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain harte onartutako ebazpenak.

### **3.- Udaleko garbiketako langileen zerrenda.**

Alkateak azaltzen du epea bukatu zela eta aurkeztutakoekin zerrenda egin dela. 13 pertsona aurkeztu dira eta orain balorazio mahaia bildu beharko da balorazio egin eta azterketa prestatzeko. Zehaztuko du balorazio mahaia data.

### **4.- Udal eraikinetako gelen erabilera arautzen duen ordenantza. Behin betiko onespena.**

Alkateak azaltzen du hasiera batez onartu zela ordenantza irailaren 9ko batzarrean, 2020ko 215. NAO n argitaratu ondoren, hilabeteko epean egon da testua jende aurrean, irailaren 23tik azaroaren 4ra. Epe horretan ez dira alegazioak jarri.

Gelen erabilera finkatu behar diren tasak zehaztu behar dira. Ordenantzaren testua argitaratzeko.

Toki Administrazioako 1990/6 Foru Legearen 325. Artikuluaren arabera bildutakoak aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Behin betikoz onartzea Udal eraikinetako gelen erabilera arautzen duen ordenantza eta akordio hau eta ordenantzaren testu osoa NAO n argitaratua izan dadin agindu.

## **5.- Mozioak.**

Emakumeen Indarkeriaren kontrako Nazioarteko egunaren inguruan federakuntza Nafarroako berdintasun teknikari sarerarekin adostuta, egindako adierazpena irakurtzen du alkateak.

*“Azaroaren 25ero bezala, gure hiri eta herrietako kaleak aldarrikapenez bete dira beste behin emakumeen aurkako indarkeria salatzeke. Indarkeria hori giza eskubideen urraketa bat dela erreklamatzeko dugu berriz ere, bai eta gure gizartean diren botere- eta desparekotasun-harremanek eutsitako sistema patriarkalaren adierazpenik krudelena ere. Harreman horiek, hain zuzen, eragozten diete emakumeei bizitza duin eta autonomoa izatea, askatasunean.*

*Azken urteetan aurrerapauso ugari eman dira emakumeen aurkako indarkeria ikusarazi eta haren konplexutasuna identifikatzeko lanean. Nabarmentzekoa da hainbat esparrutan egindako lana indarkeria matxistaren adierazpen ezberdinak kontzeptualizatu, izendatu eta identifikatzeko. Mugimendu feministaren mobilizazioak eta erantzun kolektiboa erantsi zaizkio horri, planeta osoko milaka emakume batu baitira indarkeria horren iraunkortasunaren aurka ahotsa goratu eta haren eragina jasaten duten emakumeei elkartasuna erakusteko.*

*Denbora honetan zehar egindako lan guztia gorabehera, oraindik ere bide luzea dugu berdintasunezko gizarte bat, emakumeen aurkako indarkeriarik gabea, erdietsi arte. COVID-19aren pandemiaren ondorioz bizitza egokitu zaigun osasun-krisiak agerian utzi ditu oraindik ere bere horretan dirauten desberdinkeriak. Krisiek ez dute berekin ekartzen desberdinkeriak gutxitzea edo desagertzea, kontrakoa baizik. Konfinamenduak herritarrak hilabete batzuek etxean isolatuta egotera behartu zituen, eta horrek emakume ugari zaurgarritasun-egoera handiagotu zuen eta tratatu txarren emakumeekin batera bizitzera behartu zituen. Testuinguru horretan, hainbat arlotatik herritarren ardura eta laguntza eskatu dira denbora horretan indarkeria matxistaren biktima ziren emakumeen egoera zailari erantzuna emateko. Zentzu horretan, nabarmendu nahi dugu emakumeen kontrako indarkeria errotik ateratzeko gizarte osoa inplikatzeko duen garrantzia, eta azpimarratu konpromiso horrek osasun-larrialditik haratago doan errealitate bat izaten jarraitu behar duela.*

*Azken hilabeteotan eta konfinamendua amaitu ondoren, oraindik ere jarraitzen dugu ikusten hedabideek segitzen dutela indarkeria pairatzen duten emakumeak berriz biktimizatzen eta haietaz irudi pasiboa helarazten, subjektu pasiboak bailira, baliabide eskasekin bizi duten egoerari aurre egiteko. Indarkeriari lotutako bakardadearen eta isolamenduaren ideia helarazi zaio imajinario kolektiboari, baita tratatu txarren egoeratik ateratzeko beste pertsona batzuen esku-hartzea beharrezkoa dela ere. Hori baliagarria izan badaiteke ere nahitaezko itxialdi egoera berezietan, bizirik ateratzen diren emakumeen errealitateak ez du batere zerikusirik egunero indarkeria-egoerei aurre egiten dieten emakumeei buruz zabaltzen den irudiarekin. Begirada paternalista eta errukior horren aurrean eskatzen dugu indarkeria jasaten duten emakumeak erabakitzeke eta jarduteke gaitasuna duten*

subjektu gisa aurkezteko, aktiboak bizitzea egokitu zaizkien egoeren aurrean. Salatu eta nahikoa dela esateko ahalduntzen diren emakume gisa aurkezteko, eraldaketarako dituzten mekanismo eta gaitasunak abiatuta indarkeriarik gabeko bizitza baterantz jotzeko: **biktima izatetik bizirik ateratzera eta bizirik ateratzetik errealitatea eraldatzera**. Hori guztia milaka emakumeren urtetako borroka eta aldarrikapenek emandako bultzadarekin indarkeria matxista errotik ateratzeko eta hura pairatzen duten emakumeei denon babesa agertzeko. Zalantzarik gabe, milaka lagunek munduko toki guztietan barna aldarrikatutako “ez zaude bakarrik” eta “nik sinesten dizut” mezuak bultzada kolektibo bihurtu dira emakumeen aurkako indarkeriaren kontra.

Zentzu horretan, beharrezkoa da berdintasunerantz aurrera egiten eta maskulinitate eta feminitate eredu tradizionalak deseraikitzen jarraitzea, eta maitasun erromantikoaren mitoa

*baztertzea –menperatzean eta mendekotasunean oinarritzen baita–, indarkeria matxistari buru emateko.*

*Gogorarazi nahi dugu, halaber, Administrazio Publikoek, bereziki Tokiko Entitateek, gauzatutako politiken eta ekintzen garrantzia sentsibilizazioaren arloan, indarkeriaren prebentzioan eta bizirik atera diren emakumeei arreta osoa ematen, betiere ahalduz esku-hartzearen jomuga hartuta. Azken urteotan baliabide eta zerbitzu asko garatu dira indarkeria matxistari eta horren ondorioei aurre egiteko. Zentzu horretan, nabarmendu nahi dugu garrantzia handia duela zerbitzuak eta haien arteko koordinazioa hobetzen jarraitzeak, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen desberdinei erantzun egokiak emateko.*

*Horregatik guztiarengatik Tokiko Entitateek honako hau ADIERAZTEN DUGU:*

- *Gure arbuioa emakumeen aurkako indarkeria-mota ororekiko, edozein arlo eta testuingurutan.*
- *Gure konpromisoa instituzio publiko gisa zaurgarritasun-egoerak eta emakumeen aurkako indarkeria eragiten dituen desberdinkeria oro deuseztatzeko lanean jarraitzeko, hala Administrazio Publikoen nola gizarte zibilaren konpromisoa sustatuz.*
- *Gure elkartasuna erasotuak izan diren emakumeekin eta egunero indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakume eta neskekin.*

*Amaitzeko, herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu jarrai dezaten emakumeen kontrako indarkeria deuseztatzeko konpromisoa adierazten, baita desberdinkeria mota guztiak eta emakumeei haien askatasuna eta autonomia erabiltzea eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzen ere, eta animatu nahi ditugu azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte hartzera. “*

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako adierazpena eta NUF-ra bidaltzea adosten dute.

Bestetik alkateak adierazten du Saharako egoeraren aurrean beste adierazpen proposamena bidali dutela ere. Ondoren irakurtzen du.

*“1975eko azaroaren 14an, duela 45 urte, "Espainiaren, Marokoren eta Mauritaniaren artean Mendebaldeko Saharari buruzko printzipio-adierazpena" izeneko dokumentua sinatu zen Madrilan, "Madrilgo hiruko akordioak" izenez ezagutzen dena, eta Mendebaldeko Saharako herria behartutako lekualdatzera eta Marokoko Erresumak bere lurragan legez kanpo okupatzera kondenatu zuten.*

*Madrilgo akordioak ez zuen balio legalik, Saharako aldearen presentziarik gabe sinatu baitzen. Akordio horietan xedatutakoaren arabera, lurraldeko administrazioa hainbat neurriren mende zegoen, eta neurri horien indarraldia 1976ko otsailaren 26an amaituko zen. Gainera, horrek Nazio Batuen Erakundea traizionatzea zekarren, ez baititu Madrilgo akordioak onartzen, Mendebaldeko Sahararen estatusari buruzko jarrera desberdina duelako; izan ere, lurralde ez-autonomoen eta deskolonizatzeko dauden lurraldeen zerrendan sartzen du.*

*Estatu espainiarrak, Nazio Batuen presioa gora-behera, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesua atzeratzen joan zen, Maroko lehenik eta geroago Mauritania lurralde honen inguruko aldarrikapenak areagotzen joan zedin, Hagako Nazioarteko Justizia Gorteak inolako eskubiderik ez zutela ebatzi zuelarik. Auzitegi horrek saharar herriari autodeterminaziorako eskubide besterenezina ahalbidetzeko eta bere etorkizuna erabakitzeke hitza emateko beharra ezarri zuen.*

*Bestalde, Nazio Batuek MINURSOri agindu bat eman zioten, baina ez du bete, eta Marokoko Erresumaren alde egin zuen. Gainera, ez zuen eskumena eman giza eskubideen zaintzan, eta, beraz, ez zuen segurtasuna bermatu eremu horretan.*

*Fronte Polisarioak Marokotik Guerguaterara, Mauritaniako mugara, indar militarrek bidali izana salatu du iragan asteetan. Ekintzaile sahararrek kanpaldia egin zuten zonaldean, lurraldean legez kanpo zeuden tropa marokoarren irteera eskatzeko, Nazio Batuek Bake Akordioan (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarretan jasotzen den bezala, bertan debekatzen baitzen Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea.*

*Azaroaren 13an, Marokoko Erresumak Fronte Polisarioarekin 1991n sinatutako su-etenaren urratu zuen. Fronte Polisarioak saharar biztanleria zibila babesteko erasoari aurre egin zion, eta su-eten akordioaren amaiera iragarri zuen. Beraz, lurralde osoan gerra-egoera ezarri da.*

*Espainiako Gobernuak, Mendebaldeko Sahara, deskolonizatzeko zain dagoen Afrikako kontinenteko azken lurralde ez-autonomoaren, de iure administrazioa gisa, saharar herritarren segurtasuna zaintzeko erantzukizuna du, eta MINURSOrekin batera, saharar herriaren autodeterminazio-erreferenduma betearazteko agindua.*

*Ilido horretan, euskal erakundeak eta gizarte zibila lanean ari gara Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin, Saharako herriaren eskubide legitimoen defentsan erreferente izaten jarraitzeko.*

*Arestian aipatutako guztiagatik, udal honek:*

*Elkartasuna eta babesa adierazten die Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari, SEAD, eta Fronte Polisarioari.*

*Nafarroako Gobernuari SEADen eta Fronte Polisarioaren aldeko jarrera publikoa har dezala eskatzen dio.*

*Marokoko Erresumak 1991n Fronte Polisarioarekin sinatutako su-etenen apurketa salatzen du. Horren harira, Saharako Gobernuak erasoari emandako erantzuna babestu du. Fronte Polisarioa babesten jarraituko du, bere lurraldearen subiranotasuna eta saharar biztanleria zibila babesteko hartzen dituen erabakietan.*

*Nazio Batuen ebazpenen arabera, saharar herriaren autodeterminazio- eskubidea defendatzen du, eta Marokoko Erresumak saharar lurraldearen legez kanpo okupazioa salatzen du.*

*Mendebaldeko Saharan erreferenduma egiteko MINURSOren agindua ez betetzea salatzen du. Eta Nazio Batuen Batzar Nagusiari eskatzen dio bere gain har dezala dagokion erantzukizuna, eta ondorioz, aplikatu ditzala saharar herriaren subiranotasunaren aldeko eta Marokoko Erresumak saharar biztanleria zibilari egindako giza eskubideen urraketa sistematikoa salatzeko onartu dituen ebazpenak.*

*Mendebaldeko Sahararen de iure administratzaile gisa duen erantzukizuna bere gain hartzea, eta horren arabera jokatzeko eskatzen dio Espainiako Gobernuari, parte aktiboa izan dadin saharar herriarentzako erreferenduma lortzeko eta saharar biztanleria zibila babesteko.*

*EBko erakundeei SEAD eta Fronte Polisarioa defendatzeko eskatzen die, saharar herriaren eskubide legitimoen defentsan aktiboki parte hartuz.*

*Berretsi egiten ditu saharar herriaren askatasunaren alde eta Marokoko legez kanpoko okupazioaren aurka onartutako adierazpen instituzionalak eta gainerako akordioak.*

*Nazioarteko komunitatea saharar herria defendatzera deitzen du, Saharako Estatu independenteak eskualdean oreka eta egonkortasunerako faktore gisa duen garrantzia aldarrikatuz.*

*Kezka berezia adierazten du lurralde okupatuetan bizi diren zibil saharauekiko. Ildo horretan, Europako erakunde eta gobernuei eta NBERi eskatzen die giza eskubideen arloko behaketa-ordezkaritzak bidal ditzatela.”*

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako adierazpena.

Gai ordenean sartu gabeko gai bat aztergai dagoela adierazten du alkateak hirigintza batzordean aztertu ondoren erabaki behar dena.

**Berueteko 12. Poligonoko 548. Lursailean kanpamentu turistikoa jartzeko proiektua.**

Alkateak azaltzen du berriki Nafar Gobernuak jakinarazi diola udalari eta sustatzaileari proiektua aurrera eramateko dokumentazio gehigarria aurkeztu behar dela, eta horretan dabil sustatzailea baina udalari eskatzen diotena da alde batetik alde dagoela proiektua aurrera eramatearekin, eta bestetik kontutan hartuta hasiera batez onartu den udal planean ez denez aurreikusten holako proiektuak onartzea, horren inguruan erabakia hartu dezala.

Bildutakoek garbi dute proiektuaren aldekoak direla, horrelako ekintzak Basaburuaren garapenaren aldekoak direla, proiektua bailararen interes orokorrerako ona dela.

Holako proiektuak aurrera eramateko hasierako udal planaren dokumentua aldatu beharra ere ikusten dute eta hortaz hori egiteko pausoak emango direla, plana berritzen den arkitektoari, hala adieraziz.

Gaia eztabaidatu ondoren bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute, aho batez:

- **Babesa ematea Berueteko 12. Poligonoko 548. Lursailean kanpamentu turistikoa jartzeko proiektuari, Basaburuko bailararen garapenerako interesgarria delako.**
- **Basaburuko udala berrikusten ari den udal planaren dokumentazioa Basaburuko garapenerako onak diren mota honetako proiektuak baimendu ahal izateko aldaketa egitea eta hala jakinaraztea udal plana berritzen ari den arkitektoari eta Nafar Gobernuari.**

**6- Batzordeen informazioa.**

**Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.**

Jauntsaratsko haritzietan panel berriak jarri dira, aurrekoan ondatuak zeudelako.

Bestetik lehen sektorearekin lotutako ondoren egitea aurreikusten diren azokak beste kultur ekintzekin batera egitea aztertzen ari dira eta horretarako urtarilean izanen dute bilera eskualde mailan



Berute eta Ihabenen fibra jartzeko proiektua bukatua dago, orain Basaburua osoak dauka fibraren instalazio egina Arrarats ezik, beraien borondatez Telefonika empresaren bidez egingo da. Basanet elkarteak osatzen denean hornidura empresari eskeinitako zaie ere herri hauetan zerbitzua ematea.

### **7- Informazio orokorra.**

- Toki administrazioko departamentua, Apeztegi berrin igogailua jartzeko obra bukaera aurkeztu ondoren diru laguntzaren azken zatiaren ordainketa onartu dute 2020/630 Ebazpen bidez, 8883,38 eurokoa.

- Hezkuntza Departamentuarekin sinatu da 0-3 eskolako 2020-2021 ikasturteko finantzaketa arautuko duen hitzarmena, udal honi dagokion zatia 16885,12 eurokoa izanen da eta hezkuntzak jarriko duena 47035.34 eurokoa.

- Lurralde Antolamendu Departamentuak 2020/94E foru agindu bidez atzera bota du Marako bordak apartamentu turistikoak ez jartzeko erabakiaren aurka sustatzaileak jarritako helegitea.

- Itxaso- Castejon goi tentsioko linearen espedientearen inguruan Transizio ekologikorako Ministeritzak adierazten du egun ez dagoela espediente hori irekia eta proiektua aurkeztekotan jende aurreko tramitazioa ireki beharko liratekeela.

### **8. Erregu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 19:30 ak direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.